


# Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1995eko irailak 14 • 82.zka. •



■ San Migelak

■ Diska gregorianoa

■ Agur, J.J. Aretxaga

■ Aretxabaletarako idazkera liburutxo



## 95-96rako EUSKARA IKASTAROAK

Maila guztiak: EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE ETA EGA

### ERRITMOAK

Egunero 2 ordu  
Egunero 3 ordu  
Egunero 4 ordu


Egunero 5 ordu

### IRAUPENA

Iraila-Ekaina  
Iraila-Ekaina  
Urria-Abendua  
Urtarrila-Martxoa  
Apirila-Ekaina  
Iraila-Otsaila  
Otsaila-Ekaina

### PREZIOAK

22.500 pzta.  
33.735 pzta.  
13,520 pzta.  
13.520 pzta.  
13.520 pzta.  
29.250 pzta.  
29.250 pzta.



Beka-sistema eta dirulaguntzak ditugu. Galde ezazu.

### MATRIKULALDIA

Irailaren 1etik zabalik

**IKASTAROAREN HASERA:** Irailaren 13a

### BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 09.00-12.30 Arratsaldez: 15.00-19.00

16 URTETIK GORAKOENTZAT

Aretxabaleta-Eskoriatza "Leintz" Udal Euskaltegia

Durana, 11 (Aretxabaleta) - Fernando Enparantza (Eskoriatza) ☎ 79 21 68

## ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN ZAPATA DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINKETA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43

## LEBER GABINETEA

ORAIN ARETXABALETAN:

### LANGAIAK:

- Laguntza eskolarra:

O.H.O

B.O.

B.B.B.

- Ikas teknikak

- Porrot eskolarra

• DIAGNOSTIKO PSIKO-PEDAGOGIKOA

• DISLEXIA

• DISLALIA

• DISGRAFIA


• DISKALKULIAREN BERREZIKETA

### Izen emateko egunak:

Irailaren 18tik 29ra (ordutegia 3,30-6,30)

Nafarroa, 2 ☎ 79 03 34





## Ze iruditzen zaizu Aretxagazeta herriko euskeran idaztea?

**Maite Iturriaga**  
(Langilea)

Ondo pentsatzen zait. Euskera batuan saila egiten zait irakurtzea eta niretzat hobeto legoke herriko euskeran idaztea.



**Joseba Lasagabaster**  
(Langilea)

Ondo iruditzen zait. Askok hobeto ulertuko lukete. Euskera batuan ere oso ondo dago baina asko kostatzen zait ulertzea.



**Ainhoa Berezibar**  
(Ikaslea)

Pertsona nagusiek ulertzeko sailtasunak dituzte eta horiendako hobeto. Euskaldun berriendako oztopo bat izan daiteke.



**Itxaropena Urrutia**  
(Pentsionista)

Ondo. Herrirako gauza haundia izango litzateke, aberasgarria. Ulertu ere errazago ulertuko nukeela uste dut.




Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultur sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Aretxabaletako  
Udalak diruz  
lagundutako  
aldizkaria



### ESKUTITZAK

#### Loramendi Elkarte

Agur t' erdi atxabaltarrok:

San Migelak ere badatozela eta, geure egitarautxo moldatzen hasita gaude.

- Jakingo duzu **LORAMENDIREN OLERKI LIBURUA**ren berragitarapena kaleratzekotan garela. Hau prentsaurreko baten bitartez egingo dugu irailaren 19an, aurkezpenarekin bukatzeko irailaren 22an **Joxean Artzek** gaurko poeta batek Loramendiren omenezko poesia aretoan errezitaldia eskainiko digu Kurtzebarriko aretoan arratsaldeko 8retan.

- Irailaren 23an, zapatua, **TRIL** emakume taldekoek urteroko talo txosna jarriko dute egun guztian zehar.

- Egun berean, arratsaldeko 6,30etan **BEINKE LORAMENDI** dantza egingo da. Dagoeneko entsaioak hasita daude astelehen eta eguaztenetan arratsaldeko 8retatik 9ak aldera arte. Ekintza honetan parte hartzeko jendea behar dugu. Dantzan egitea gustetan zaion edonor etorri daiteke. Badakizu animatu zu eta ingurukoak.

- Dantza bukatzerakoan, gure lokal aurrean **ANDONI EGAÑA** eta **IÑAKI MURUA** bertsolarien saioa izango da.

Parte hartu eta ondo pasau jaiak.

Besterik barik, badakizue non garen.

Loramendiko zuzendaritza batzordea

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia  
**Erredakzio-kontseilua:** Marta Madinabeitia, Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantazu Abasolo, Xabin Arriola. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Aitor Antxia, J.J. Aretxaga, Iñaki Urreta, Loramendi K.E., Udala.  
**Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94  
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.


Aretxagazeta

1995eko irailak 14 - 3. orr.





## ka irailaren 18an zabalduko da



Ludotekako hormak dotore dotore margotu dira

Ikasturte barriarekin batera LORAMENDI ELKARTEAk irailaren 18an zabalduko du ludoteka. Gainera umeen pozerako berrikuntzarik ere bada. Umeek zertxobait aldatuta topatuko dute ludoteka, hormak margotu egin dituzte eta. Margoketa lanetan Margo Lagunak taldeko Idoia Elexpuru eta Mikel Arroiabe aritu dira. Ludotekako horman Edurne Zuri eta zazpi ipotxak eta Asterix eta Obelisen irudiak ikusi daitezke eta umeendako benetan aproposa gelditu da.

Joku barriak ere badira, beraz umeek ongi pasatzeko eta euskaraz mintzatzeko toki eta unerik izango dute. Monitore lanetan Mirian Priegok jarraituko du momentuz.

Kontutan izan bazkide txartelak barriztu egingo direla eta umeek 500 pezeta ordaindu beharko dutela bazkidetza.




Trikitilarik giroa berotzen ahalegindu ziren

## Giro hotza baina lagun asko Kurtzebarriko egunean

Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere lagun asko igo zen domekan Kurtzebarrira. Haize gogorrek jotzen zuen goian eta jertse eta anorakak gogoz jantzi zituzten bertan bildutakoek. Antolatutako moduan Xabier Zuberok meza eman zuen 11,30etan. Ostean Jose Luis Arana "Gatza" zenari omenaldia egin zitzaion eta lore erramua jarri zen Kurtzebarriko gurutzean. Urtero moduan Murruxokoez salda eta txanpaina banatu zuten eta trikitilariak ere han egon ziren giroa berotzeko asmoz.

Eguraldi txarraren ondorioz, bertan bildutako guztiak behera jeitsi ziren Elizabarrin asmoa zuten moduan bazkaltzen gelditu barik.



## GARAGE NORTE S.L.


Zerbitzu Ofiziala

Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86

ARETXABALETA

## BASTER-ALDE JATETXEA



SASOIKO JAKIAK  
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

## CONSTRULAN ARQUERO ANAIK

Indusketa eta  
etxagintza lanak

Basabe Poligonoa, 4 EO-11

Tfno eta faxa: 79 01 51

ARETXABALETA



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 79 81 78  
Aretxabaleta



## Gregoriano koruak compact diska grabatu berri du



Gregoriano korua jo ta ke lanean ari dela esan behar da. Pasatu den asteburuan esaterako Aretxabaletako eta Gasteizko gregoriano koruak Compac diska grabatu zuten. Grabaketak Estatu Batuetako disko etxe batek burutu ditu, eurak gregoriano koruari ala eskatuta.

Grabaketak Aguilar De Campo herrian egin zituzten Santa Maria de la Real Monastegian. Hiru egunetan gelditu gabe ibili ziren grabaketa lanetan. Angel Barandiaran Aretxabaletako abesbatzeko zuzendariaren berbetan lan gogorra izan da, "gau eta egun ibili gara grabatzen eta oso

*gogorra egin zaigu. Hala ere, oso esperientzia polita izan da, batez ere grabazioa nola egiten den ikustea, zelako teknikak erabiltzen diren, e.a."*

14 abesti dituen Compac diska gabonetarako kalean egongo da eta Espainian eta Estatu Batuetan saltzeko asmoa dute. Esan beharra dago, abesti guztiak gregoriano maila barrukoak direla eta Siloseko disko famatu hura zuzendu zuen Ismael Fernandez de la Cuesta dela oraingo koruaren zuzendaria ere.

Aurrera begira gregoriano koruak baditu hainbat proiektu. Alde batetik kontzerto batzuk ematekotan dira, Madrilen eta Burgosen. Bestetik, telebistarako erreportaiak ere grabatu behar dute. Azken hau Leonen egingo dute irailaren 29, 30 eta urriaren 1ean. Azkenik, Estatu Batuetara ere joateko asmoa badute baina azken hau erreportaiak eta diskak izaten duten arrakastaren arabera egongo da. Beraz, oraindik ez dago zehaztuta bidaia hau burutuko duten ala ez.

## Musika eskolak kurtso barriari ekin dio

Irailaren 13an kurtso barriari ekin zioten musika eskolakoek. Gogoratu oraindik inskripzio barriak egiteko epea zabalik

dagoela eta apuntatu gura izan ezkerreko musika eskolatik (Otalora 27) pasatu besterik ez duzuela egin behar.

## Aurten ere Aquayim ikastaroa izango da

Duela urte t'erdi hasi ziren Aquayim ikastaroak ematen kirol-etxean.

Aurten beste era batera antolatu da ikastaroa. Eguakotxetan ezik asteko lau egunetan emango da, astelehen, martizen, eguazten eta eguenean. Ordutegiari dagokionez bi txanda egongo dira, lehena arratsaldeko 4,30etatik 5etara eta bigarrena ilunkaran 8etatik 8,30etara.

Apuntatu gura duzuenontzat igerian ideia txiki bat izatea eskatzen da.

Bestalde, Aquayim-a zer den jakin gura duenarentzat aukera ezin hobea dago. Saio batetara dohanik joateko aukera eskaintzen da. Beraz, kirol hau zertan datzan jakin gura duenak hementxe du aukera.

Ikastaroaren prezioa bazkide direnentzako 2000 pezetetako da eta bazkide ez denak osterara 3000 pezeta ordaindu beharko ditu.

Apuntatu gura izan ezkerre jo kirol-etxera eta Pedrogatik galdetu.

## Igeriketa ikastaroa

Igeri ikastaroan apuntatzeko epea zabalik dago. Ikastaroa aurrera eraman ahal izateko plazak bete beharko dira. Ordutegiari dagokionez, bi txanda egongo dira.

Alde batetik, umeendako 6etatik 6,45era bitartekoa izango da eta nagusiendako 7etatik 7,45 bitartekoa. Ikastaroan apuntatzeko bazkide direnek 4.500 pezeta ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 6.000 pezeta.

### DOIKALSE

Elektroerosioa  
Zuzendua

Poligono Basabe C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 79 82 44

### EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43

FOTO

*Urkiola*

Tfnoa: 79 39 20  
ARETXABALETA

### GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28



# Ekintzaz betetako San Migelak

Laster ditugu San Migelak. Aurten irailaren 22, 23 eta 24an ospatuko dira eta egun hauetarako badago egitarauan ekintza berezirik, poesia errezitaldia, akordeoi orkestaren eta bandaren kontzertua, "Guinness" liburuko marka hautsiko duen txanpon bilketa, artisauen ferixa, produktu biologikoen ferixa, bertso saioa, e.a. Esan behar herriko taldeen eskutik ekintzak antolatzerako orduan inoiz baino partaidetza haundiagoa egon dela. Partaidetza hau benetan eskertzekoa da. Horrela denon artean jai animatuagoak antolatzea lortuko dugu.

**Ondo pasau!!!**



## Irailak 22 eguakotxa

Arratsaldeko 6etan, **kanpai jotzea eta txupinazoa.**

6,15etan **bonba japoniarren jaurtiketa.**

6,30etan **buruhaundien kalejira txistulariekin.**

7etan, **kale animazioa**

"**Kukubiltxo**" taldearen eskutik.

8etan, **Joxean Artzek** gaurko poeta batek **Loramendiren omenezko poesia errezitaldia** eskainiko du Kurtzebarri eskolako aretoan. (Loramendi E. antolatuta).

Gaueko 10,15etan

**Aretxabaletako Akordeoi Orkestraren kontzertua** Durana kalean.

11etan, **pilota partiduak** Iturrigorri frontoian.

## Amaia-Berri, S.L

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



## FELIX ARRESE

Edari Banatzailea

**KELER**



El León

Industrialdean

Tfnoa: 79 60 65

## **MENDIOLA ERRETEGIA**

Bazkari eta afariak

**Astelehenetan itxita**

Tfnoa: 71 43 45

**ESKORIATZA**

## **BENGOA URDAITEGIA**

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9

Tfnoa: 79 19 79

## **MartiW**

RELOJERIA - BIXITEGIA

Bere bezeroen  
zerbitzuan

Mitarte, 16

Tfnoa: 79 01 72



## Irailak 23 zapatua

Goizeko 10,30etan **diana herriko txistulariekin.**

10etatik 2,30ak arte, Durana kalean (Eroski aurrekaldean) **“GUINNESS”** liburuko marka **hautsiko duen txanpon bilketa BUKAVU** proiekturako. Hiruatx **Hirugarren Mundu Taldeak antolatuta.**

11etan, **txalaparta.**

11,30etatik 2ak arte,

**Arrasateko gaiteroak eta Aretxabaletako trikitilari eta buruhaundiekin batera kalejira.**

Eguerdiko 12etatik arratsaldeko 6,30ak arte, **umeentzako parkea** plazan. Trena, puzgarria, dinosaurioa, pista amerikarra.

Arratsaldeko 2,30etan **HERRI BAZKARIA** plazako arkupeetan. Marmitakoa egongo da bazkaltzeko. **Aretxabaletako Talde Antimilitaristak** antolatuta. Prezioa 1000 pzta.

Arratsaldeko 5etatik 9ak arte, **“Patxaranga la nuestra” txarangak** herriko kaleak girotuko ditu.

Arratsaldeko 7retan, **Beinke-Loramendi dantza herriko plazan LORAMENDI E.** antolatuta.



Aurten ere Loramendi-Beinke dantza dantzatzuko da

7,30etan, Loramendi aurrekaldean bertso saioa. Bertsotan **EGAÑA** eta **MURUA** arituko dira gai librean. (Loramendi E. antolatuta)

8etatik 9ak arte, **poteo herrikoia Aretxabaletako trikitilariekin.**

Gaueko 10etan **San Migel bolo txapelketa.**

10,30etan, **Txinparta taldearekin dantzaldia** Durana kalean.

Gaueko 11etan **pelota partiduen finala.**

**eta honez gain....**

Goizeko 11etatik arratsaldeko 8ak arte **“Artisauen Ferixa”** ikusteko aukera egongo da plazan.

Gernika enparantzan barrez, **produktu biologikoen lehenengo ferixa** eta lehenengo **patxaran lehiaketa** egingo da. (Eguraldi txarra egin ezkerro Iturrigorri frontoian egingo da).

*Durana kalean talo egileak, txosnak, postuak e.a. egongo dira egun osoan zehar. Egun honetan baserritar jantzita irtetzea eskertuko da.*

## Irailak 24 domeka

Eguerdiko 12etan, **Aretxabaletako bandaren kalejira.**

Ordu 1etan, **Kontzertua Durana kalean.**

Arratsaldeko 4etan, **III. San**

**Migel Mus txapelketa.** Izen ematea 3,30etan hasiko da.

5,30etan, **Buruhaundiak herriko trikitilariekin.**

8etatik 12etara, **Intxausti eta Munduate trikitilariekin**

**dantzaldia** Durana kalean.

Arratsaldeko 5etan futbol partidua izango da, **ARETXABALETA K.E. “B”-ILINTXA S.D.**

**JOSU HARATEGIA**

**URDAITEGIA-  
GOZOTEGIA  
KROASANTEGIA  
“JANARI  
PRESTATUAK”**

**Epelde**

- Estudioa
- Ezkontza-erreportaia
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24  
Tfnoa: 79 19 71

**INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK  
URKULU, S.A.**

Mitarte, 23  
Tfnoa: 79 96 66

**ARETXABALETA  
ITURGINTZA**

Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA





# Pinuaren problematika

Bizkaia eta Gipuzkoan, basoen % 80a pinudiek osatzen dute, datu honek argi erakusten duelarik landare hauek Euskal Herrian duen garrantzia. Hainbat pinu mota aurki ditzakegu Euskal Herriko bai Aretxabaletako lurretan, hala nola, Intsignis pinua (*Pinus radiata*), pinu gorria (*P. Sylvestris*), pinu beltza (*P. nigra*) .... Arrazoia sinplea da: pinuek beste zuhaitzek baino arinago produzitzen dute egurra, hau da, dirua.



*Pinudiek kalte egiten diote lurzoruari*

## Pinuaren kalte ekologikoak

Egia da, pinudia ezin da "baso" kontsideratu, "egurretarako kultiboa" baizik. Benetako basoa bertako zuhaitzek osatzen dute inguruko animalia eta lurrarekin orekan. Pinudietan barriz ez da oreka hori betetzen, are gutxiago sarritan garbiketa latzak egiten badira pinudiaren oinean.

Era berean, pinudiek kalte egiten diote lurzoruari. Izatez lur pobretako landarea da eta gure lurretan landatzerakoan, bera lur honetara moldatu beharrean, lurra moldatzen du bere izaikerara. Humus pobrea sortzen du, azido eta fenolak bezalako sustantzia toxikotan joria dena, eta horrela, lurzoruko elikagaiak erraz galtzen dira. Honetaz gain, mozketa orduan, lur sail batetako pinu guztiak batera talatzen dira (matarrasa) eta ondoren azalera hori erre egiten da, bertan egon zitekeen fauna edo flora apurra deuseztuz. Orduan, mendeetan zehar eraturiko lurzorua agerian gelditzen da gero haize eta euriaren eraginez erosiaturu egiten delarik.

Bestalde, pinudiak, beste edozein kultibok bezala, izurrite ugari erakar-


tzen ditu, garrantzitsuena "Procesionaria" (*Thaumetopoea pityocampa*) izenekoa. Har honi aurka egiteko metodo nagusia "fumigazio masiboa" da eta honek, bertako bizidunetan eragin latza du, ura ere kutsatzen du eta gizakiari kalte egin diezaiokeela ere estimatu izan da.


## Soluzio bideak

Aspaldian, pinuen eta bertako zuhaitzen arteko baso mixtoak landatzen hasi dira, horrela, baserritarrak pinuen irabazia jaso dezan zuhaitz autoktonoak ere hazten dituen heinean.

Lurjabe batzuek "pinua-dirua" ideia aurka eginez, pinudia zeukaten lekuan pagadi eder bat sartu dute eta alboan merendero bat montatu. Honek dirusarrera ona ekarri die.

Azkenik, aipatu OHIANBERRI ikerketa-zentrua pinua genetikoki hobetzen ari dela landare bakoitzak bikoitza produzitu dezan. Honen helburua, produktibitate bera mantenduaz lur-sailen erdia okupatzea da, horrela terrenoak libratzeko asmotan gero zuhaitz autoktonoak sartzeko.

 Mikel Arroiabe



**LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE**

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk  
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

**MAITE  
ILEAPAINDEGIA**

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05  
ARETXABALETA

**GATZAGAn,**

ERDI ERDIAN

**ZUHAITZ  
jaketxea**



ZENTRO  
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak

Erreabilitazio funtzionala

Logopedia

Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
☎ 79 48 77 ARRASATE



# Okila taldea, egurrari bizitasuna ematen

Egurra lantzeak gure herrian bere tarteak baduela esan behar da. Duela urte batzuk sortutako Okila Elkartek hortan dihardu behintzat, egurrari forma eta bizitasuna ematen.

Okila taila elkarteak duela 4 urte sortu zen. Orduko BEINKE Elkartek antolatutako ikastaro batetan izan zuen bere jatorria. Jose Ugarte atxabaltarra aritu zen erakusten eta baita ikastaroan ibili ziren lagunei tailarako grina sortu ere. Horrela urtebete inguru pasatu zenean talde bat sortzea pentsatu zuten.

Beraien asmoa taila ikastaroan ikasitakoa praktikan jartzea eta jarraipen bat ematea zen. Udaletxeak utzi zien tailerra, erramintak beraien poltsikotik erosi zituzten eta horrela gertu zeuden egurra lantzeko arloan zekiten apurra osatzen joateko.

Momentu honetan 25 bat partaide dira taldean. Poliki poliki taldea gehituz joan da eta tailerra txiki gelditu da guztiendako. Orain bakoitza bere kabuz aritzen da egurra lantzen Okilak duen tailerrean. Beraiendako afizioa da egurra lantzea, eta maila txikia dutela esaten badute ere, erakusketetan gauza politak egiten dituztela erakutsi digute, ispiluak, etxerako tresnak, markoak, e.a.

Pello Olabe, atxabaltarra, taldeko sortzaileetarik

**Okila taldea Aretxabaletan egurra lantzen duen taldea da. Sortu zenetik hainbat ikastaro eta erakusketa antolatu dituzte eta aurtengo urterako ere urriaren 2an hasiko da ikastaroa.**



bat da. Berarengana jo dugu Okila taldeko eta tailaren inguruko xehetasunak jakiteko.

Pellock egurra lantzeko prozesua esplikatu digu. "Lehenik eta behin egur mota aukeratu behar da, haritza, intxaurra, pagoa, e.a. hau bakoitzaren arabera dago, niri adibidez haritza gustatzen zait gehien. Gero egurrean markatu behar da egin gura duzun marrazkia. Marraztu ondoren erramintak erabiliz punzoia, egurrezko mailuka e.a. egurra lantzen da. Bukatzeko berriz, lixatu egin behar da egurra, leun leun gelditu dadin.

Dagoeneko hainbat eta hainbat ikastaro antolatu dituzte. Ikastaro hauetan taldeko denak aritzen dira maixu lanetan.

"dakigun apurra erakusten diegu ikastarora datozeinei, baina esan behar da tailan maixua Jose Ugarte dela, esperientzia haundikoa da eta."

Okila taldekoek herritar guztiei taila ikastaroan parte hartzeko gonbidapena luzatzen die. Urtero lagun dexente apuntatzen da ikastarora, hauetatik batzuk jarraitu egiten dute beste batzuk ez ordea. Gazteak dira gehien animatzen direnak eta baita jubilatua ere. Azken hauentzat aukera ona izan daiteke duten denbora librean afizio bat bilatu eta egiteko gustoko zerbait izan dezaten.



## TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26  
Tfnoa: 79 20 67  
ARETXABALETA

## ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA, S.A.

### "ARINSA"

Basabe Poligonoa "EO-10"  
Tefonua: 79 62 80  
ARETXABALETA (GIPUZKOA)

## URBALTZ



### TABERNA

Mitarte 21, behea  
Tfnoa: 79 79 79  
ARETXABALETA



## J. ALTUNA Zurgindegia

Sukalderako  
altzaria

Basabe Poligonoa, A-2-3  
79 72 55 Aretxabaleta

## Izozkitekiki-Gozotegi IZOZKITEGI

Otalora, 11  
Tfnoa: 79 93 58  
ARETXABALETA



# Gure berbekin idazten

Zelan idatzi behar dugu Aretxabaletarako euskera batuaren arauak kontutan izanik?

Gure herriko hiru lagun, Jon Sarasua, Ane Loidi eta Jon Antxia galdera honi erantzuna topetan saiatu dira. Hori dela eta, Aretxabaletarako idazkera liburuxoa atera barri dute. Bertan, gure herrian zelan idatzi beharko genukeen adierazten duten hainbat eta hainbat erizpide azaltzen dira. Hitz idatzi beharrean berba, nahi idatzi beharrean gura, eta horrelako beste adibide batzuk. Hirurak ere gai hontan adituak direla esan behar. Jon Sarasua, bertsolaria, kazetari-tzan lizentziatua da eta kazetari hizkuntzari buruzko tesi doktora bukatzen ari da. Ane Loidi, euskal filologian lizentziatua, Euskaltzaindiaren "Orotariko euskal hiztegiari" lanean dabil. Azkenik; Jon Antxia, magisteritza eta euskal filologian lizentziatua da eta helduen irakaskuntzan lanean dihardu. Eurek ordea hobeto emango digute egin duten lanaren barri.

## □ Zer da idazkera liburuxoa?

Euskera batuan eta modu arautu batean Aretxabaletarako zelan idatzi behar den azaltzen duen liburua. Beste modu batean esateko, Aretxabaletako irakurleei egokitutako hizkera modua egiteko hainbat forma batzen ditu, hau da, guk Aretxabaletarako zelan idatzi beharko genukeen. Oinarrizko erizpideak eman gura izan ditugu eta gerora erabilerak lagunduko digu berau osatzen. Euskera batuak euskeraz idazteko posibilitate haundiak ematen ditu eta baliabide hauek Aretxabaletarako egokitzen

saiatu gara.

## □ Nondik nora sortu zitzaizuen lan hau egiteko ideia?

Gipuzkeraz hitzegiten ez den tokietan, iparraldean eta Bizkaian batez ere beti egon da herriko euskeraren idazkerari buruzko kezka hau. Presitigio kontua da, euskera batuaren boom-a izan zenean ez zen jakin herriko hizkerari prestigioa ematen. Hizkuntza kultoa edo ikasia "euskera batua" da eta bestea desprestigiatuaz joan da.

Orain dela urte batzuk Aretxagazetako batzordean genbiltzanean bagenuen ideia hau. Gero saiatu ginen Aretxagazetan gure filosofia hau sartzen. Filosofia beti garbi

izan dugu, baina polita iruditu zitzaigun Aretxagazetan bi urte zuzenketa lanetan egin eta gero ideia horri forma bat ematea. Honetarako urte bete behar izan dugu. Guk herrian erabiltzen diren forma desberdinak jaso ditugu, herrian esanguratsuenak direnak. Han eta hemen kontsultatu dugu eta horrela osatuaz joan gara idazkera liburua.

## □ Zein da egin duzuen lan honen helburua?

Aretxabaletako hizkera idatzian integratzea da gure helburua, hau da, herriko elkarte batek edo edozein herritarrek ahoz esateko duena zelan idatzi behar duen adierazten dugu, herriko kartelak zelan idatzi behar diren, e.a.



Joan den astelehenean liburuaren aurkezpena egin zuten



Guk idazkera eredu bat egin dugu, diskutigarria izan daiteke. Beti ere eritzi desberdinak egon daitezke.

**□ Zelakoa da orduan zuek deskribatzen duzuen idazkera?**

Samurra, euskera batuan eta Aretxabaletako berbekin eta sintaxiarekin egin. Irakurleak nortzuk diren kontutan hartu behar da beti. Gure herriko gehienek eskualdeko euskalkian berba egiten dute. Honez gain, erdiak inguru euskeraz alfabetatu barik daude; gehienek erdaraz samurrago irakurtzen dute eta askok, kostatu egiten zaielako euskarazko irakurgaiak baztertzen dituzte.

Horreindako idazten dugu, hauek ulertzeko moduko hizkuntza egin behar dugu. Herriko jendeak hobeto ulertuko lukeela uste dugu eta hau eskertu egingo lukete. Hau ez da gure fidelitasun bakarra, euskera batuak dituen arauak kontutan izan ditugu beti.

**□ Zein zati ditu liburu-txoak?**

Lau sail ditu liburuak. Sarrera, gure filosofia esplikatzeko duena.

Gero, fonetika eta fonologia, berbetan dauden aldaketak sartzen dira hemen, adibidez berri gure idazkeran barri da. Barri lehenagoko idatzietan erabiltzen zen baina euskera batuak forma guztien artean bat aukeratu zuen berri. Guk ordea horretan flexibleagoak izan behar dugula uste dugu.

Hurrengo atal batean pekatu-txoak ere sartu ditugu. Adibidez, gure hizkeran ez dago "bait" erabili beharrik, hori ordezkatzeko baliabideak baditugu, "eta" esaterako. Liburuaren bukaeran hiztegia dago. Hemen hemengoak diren berbak

***"Guk deskribatzen dugun euskera, samurra, euskera batuan eta gure herriko berbekin eta sintaxiarekin osatutakoa da"***

sartu ditugu, gosaldu idatzi beharrean armozau, azkar idatzi beharrean aguro.

**□ Gatxa izango da horrela idaztera ohitzea?**

Ez dut uste zaila denik. Guk bi urtetan Aretxagazetan esperientzia aurrera eraman dugu eta ez dugu arazorik izan. Askotan kontzientziaz da eta berba egiten dugun moduan idaztea, noski arau batzuen barruan. Etxekoa baloratzen ikasi behar dugu eta etxekoak duen pisua benetan itzela da. Guk proposatzen dugun idazkera % 90ean euskera batua da, beste zatia herriko euskalki eta berbek osatuko lukete.

**□ Non zabaltzeko asmoa duzue idazkera liburua?**


Euskal Herriko euskera elkarte guztietan eta herri komunikabideetan zabaltzeko asmoa dugu. Gure artean egon den kezka hau badakigu beste leku batzutan ere planteatu dela. Orduan jendeak gure lan hau ezagutzea gura dugu. Kontutan eduki behar da Euskal Herri mailan egiten den lehenengo esperientzia dela, lan honetan aintzindariak izango ginateke.

**□ Zenbat liburu atera dituzue?**

500 ale kaleratu ditugu. Kontutan euki behar da Aretxabaletako Loramendi elkarteari esker eta Euskadiko Kutzari esker kaleratu dugula. Gure asmoa Loramendiri planteatu genionean ilusio handia jarri zuten eta hori denori esker-tzekoa da.


**□ Aurrera begira ze asmo duzue?**

Lan hau lehenengo esperientzia da eta jendearen harrera nolakoa den ikusi beharko genuke. Oraindik lan asko dago egiteko, zer egin dugun ondo eta zer txarto ikertu behar dugu. Horrela gure idazkera liburua osatuz joateko.



*Idazkera liburuak gure herriko idazkeran idazteko aukera ematen digu*





## Iñurrategi anaiak heldu dira Cho Oyu-ra

Azkenean kostata baina Iñurrategi anaiek Cho Oyu-ko gailurra zapaldu dute. Irailaren 11n, eguerdiko ordu biak aldera heldu ziren tontorrera.

Murruxoko Mendi Elkar-teak, berria jakin bezain laster,

honako hau zioen pankarta jarri zuen lokalaren aurrean **“Cho Oyu jausi da!!! Lothe falta da. Eutsi”**.

Orain Lothe gelditzen zaie. Animo eta aurrera ba, goraino heldu arte.

## UDAk hasi du denboraldia

UDAKo preferente mailako taldeak irailaren 9an hasi zuen denboraldia. Lehen partidua kanpoan jokatu zuen Oiarzungo taldearen aurka. Atxalbatarrek binako berdinketa lortu zuten. Bi eta bat galtzen joan ondoren azkenengo minutuetan UDAREN aldeko penaltia adierazi zuen arbitroak. Penaltia Aranek sartu zuen, aurreneko gola barrez Kermanek. Datorren astean Tolosaldearen aurka etxean jokatu dute.

Lehenengo erregionalekoek barrez, irailaren 10ean etxean jokatu zuten Donostiako Alde-Zaharraren aurka. Gol ugari

ikusteko aukera izan genuen, 7 gol izan ziren guztira baina etxeokoei galdu egin zuten, 3 eta 4ko emaitzarekin. Datorren partidua kanpoan jokatu dute lehenengo erregionalekoek eta oraingo honetan UDA eta Danak, talde donostiarra, izango dira aurrez aurre.

UDAKo neskak oraindik ez dira partidua jokaketan hasi. Aurten gainera entrenatzaile barria dute, J.R. Prieto hain zuzen ere. Baina azken hauek jokaketan ikusteko urria arte etxoin beharko dugu, orduan hasiko dute denboraldi barria eta.

## Gimnasia klaseak hasi dira kirol-Etxean

Irailaren 11n hasi ziren kirol-etxean gimnasia klaseak. Aurten ere, mantenimendurako gimnasia, 3. adinekoendako eta gutxituendako gimnasia klaseak emango dira. Jose Luis Eraña izago da monitorea eta horrela banatuko dira egunak: astelehen, asteazken eta egua-kotxetan mantenimendu gimnasia eta 3. adinekoendako gimnasia emango da. Martizen eta eguenetan barrez, gutxituen gimnasia klaseak izango dira. Ordutegiari dagokionez, mantenimendurako gimnasia 9,15etatik 10,15etara goizez eta arratsdez, 5,30etatik 6,30etara emango da. Beti ere, apuntatutako lagun araberara aldatu daitekeelarik. 3. adinekoen gimnasia klaseak goizez izango dute ordua, 10,30etatik 11,15etara. Azkenik, gutxituek arratsaldeko betan ekin eta hiru ordu laurdeneko saioa izango dute lehen aipatutako egunetan.

Apuntatzeko epea oraindik ere zabalik dago. Beraz, apuntatu gura izan ezkerro kultur-etxean edo eta kirol-etxean egin dezakezue.

**GUREA**  
TABERNA  
JATETXEA

Durana Kalea  
Tfnoa: 79 20 64

**Jauregi**  
Okindegia

Otalora, 10  
Aretxabaleta


**IZOTZ**  
TABERNA

Mitarte, 16  
☎ 79 73 65

**ANGELINES**



**Autozerbitzua**  
Mitarte, 16 ☎ 79 61 42




**HAIZEA**  
AKEITEGIA

Mitarte kalea, Z/G  
Tfnoa: 79 85 57

**GEMES**  
EPILATERM  
Min gabeko depilazioa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18  
Aretxabaleta



**Lurrindegia**  
**Opari-denda**  
Mitarte, 18 ☎ 79 38 59



# UDAKo entrenatzaile barria, Victor Mujika

Victor Mujika, 42 urte-tako eibartarra izango da datorren denboraldirako UDAKo entrenatzaile barria. Ia ia bizitza erdia entrenatzaile lanetan eman duela esan daiteke, orain dela 20 urte hasi zen futboleko taldeak entrenatzen eta.

Hasiera batean 10 bat urte eman zituen Eibarreko gazteen taldeak entrenatzen, alebinak, jubenilak, e.a. Gero Motrikon ere aritu zen eta baita Elgoibarren eta Ermuan ere. Elgoibarren 3. dibisioa entrenatu zuen eta Motriku eta Ermuan preferenteak.

• **Bizitza luzea beraz entrenatzaile lanetan zabiltzana, aldaketa handia izan da orain UDARA etortzea?**

Ez da aldaketa handia izan. Motrikun ere preferenteak entrenatzen nituen beraz kategoria berdinekoak entrenatzen ibilia naiz lehenago ere.

• **Zu zeu futboleko jokalaria izandakoa zara?**

Bai, preferente mailan Urolan eta Bizkaiako preferentean Ermuan jokatu nuen. Nik defentsan jokatzen nuen.

• **Nola etorri zara UDARA?**



Rafak deituta etorri naiz. Pozik nago UDARA etortzeaz, beti izan da talde ona eta nik ere lan ona egin gura dut talde honekin.

• **Ze asmo daukazu datorren denboraldirako?**

Gure asmoa goian ibiltzea da, lehenengo postuetan. Lehena ateratzea saila da baina hortan ahaleginduko gara.

• **Aurtengo denboraldiko lehen partidua jokatu duzue, zelan joan da?**

Oiartzunen jokatu genuen eta binako berdinketaz bukatu zen partidua. Oraindik jokoan denbora gutxi daramagula igartzen da. Jende barri asko dago eta honek talde lan on bat egiterako orduan

eragina du. Oraindik asko entrenatu beharra dago, jokalaria jokoan ongi konpondu daitezten.

Bestalde, fisikoki asko hobetu beharra daukagu eta hemen lan asko dago egiteko.

• **Ekipoa zelan ikusten duzu?**


Ekipo ona da, jokalaria onak dira baina oraindik lan asko dago egiteko. Hasiera besterik ez da oraindik, partidua bakarrik jokatu dugu eta ezin da gauza haundirik esan. Aurrerantzean zer gertatzen den ikusi beharko da.

• **Zer da gogorrena entrenadore lanetan?**

Dena da gogorra. Kanpotik dena erraz ikusten da. Partiduetan esaterako, kanpotik beste modu batean ikusten da partidua. Askotan inpotentzia handia sentitzen da, jokalaria zer egin beharko zukeen kanpotik garbi ikusten da eta zuk hori egin dezan gura duzu. Barruan barrez kontrarioak daude eta ez da ikusten den moduko erraza.

• **Datorren partidua noren aurka duzue?**


Hemen etxean jokatuko dugu Tolosaldearen aurka. Kontutan eduki behar da etxean irabazi ezker hiru puntu direla guretzako eta partidua ahalik eta ondoan ateratzen saiatuko gara.



## ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Axeri,3 ARRASATE  
Tfnoa: 77 11 30



## EGUSKIGRAF

Aldizkariak  
Inpresoak  
Bulegoko materialak

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA  
Tfnoa: 943- 79 18 44 Faxa: 943- 79 29 41



Arientzarrak asko mugitzen dira herriko jaiak antolatzeko. Auzotarren artean garrantzi handia ematen zaie jaiari, bai antolaketa mailan eta baita partizipazio mailan ere, harro egoteko arrazoirik badute.

Aurten Andra Mari jaiak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu zuten eta esan behar arrakastatsua izan dela. Partaidetza handia egon da, guztira 23 partehartzaile aurkeztu dira eta hauetatik 12 gazteak. Azken hauek, lan politikak aurkeztu zituzten eta denek opari bana jaso zuten.

Gure txoko honetan gazteak dira protagonista. Arientzan ere izan zen kartel lehiaketa irabazi zuen gazterik, Gorka Uriarte Madinabeitiak hirugarren saria eskuratu zuen.

Bestalde, lehenengo biak ere umeak ez diren arren ezingo ditugu aipatu gabe utzi, lehenengo irabazlea Eba Madinabeitia izan zen eta bigarrena Resu Abasolo.



Hona hemen kartel lehiaketara aurkeztutako gazteak.

Eskumako argazkian dituzuen marrazki hauek dira gazteek egin zituzten kartelak



## MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABALETA



## Aholkularitza

Basabe Industrialdea  
**Aretxabaleta**  
Tfnoak: 79 88 75  
79 75 99

## OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABALETA

## Artano Taberna

Herriko Enparantza  
ARETXABALETA

## ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 32 34

**SHOT!**  
grabaciones


ARRASATE

**SHOT!** Grabaketak S.L.  
Araba Etorbidea, 3-2. solairua  
Eskatu Pabiloia  
% 943-79 37 51

Gipuzkoa







**I** 950. urte ingurua zen UDAko hasierako jokalariek argazki hau atera zutenekoa.

Mendizorrozan jokatu zuten partidua gasteiztarren kontra eta 4-1 galdu zuten. Gainera badago oraindik ere partidu hura bukatu eta zer egin zuten gogoratzen duenik. Itxura denez, hotz haundia egiten zuen egun hartan eta partidua bukatu eta urik ez zegoen. Orduan partidua bukatutakoan conac-a eraten aritu ziren argazkiko jokalariak, ondo berotuko ziren gero.

Hona hemen argazkian dauden jokalariak:

Goitik eta ezkerretik hasita: **Jesus Olivares, Jesus Urkia, Bixente Etxandia, Paiku, Imanol Alberdi (Pontoni) eta Ramon Barrutia.**

Makurtuta eta ezkerretik hasita: **Iriarte, Jabier Igartua, Jesus Mari Antxia, Fermin Lasagabaster (Kuku) eta Migel Iturrospe.**



# Agur J.J.



J.J. Aretxaga

Bi urte t'erdi gurekin izan ondoren J.J.ak utzi egin gaitu. Eskertzekoa izan da bere lana, herriko kotileoak berak kontatzen zizkigun eta. Orain barrez elkarrizketa batekin agurtuko dugu.

• **Horrenbeste denboran gurekin izan eta gero, zer dela eta aldegin?**

"El Mundo" aldizkariak fitxatu nau Paco Umbralen partez. Antzeko zerbait egin behar dut. Madrilera noa bizitzera baina bihotza Aretxabaletan daukat eta uste dut bueltatuko naizela. Batez ere PP gobernura iristen denean "El Mundo" k ez duelako funtziorik izango eta niretako ez da kontraturik egongo.

• **Zeozer esateko gogoia gelditu zaizu?**

Bai, plazako diskoteka horretara etorten direnek inguruan lekua eukita be azera gainean uzten dute kotxea apropos. Ez dakit non ematen dieten salbokonduktua.

• **Zenbat urte dauzkazu?**

68an ez ninguen Parisen baina Franco

hil zenean ospatu nuen.

• **Zenbat seme-alaba dituzu?**

Bi alaba eder ditut eta gehiago ekartzeko asmoa dut. Herria aurrera atera behar da.

• **Zertan ibili zara orain artean?**

Etxean ordenadorez lan egiten dut, geologian espezializatutako aldizkariarentzat.

• **Zer dakizu geologiaz?**

Franfurten masterra eginikoa naiz, geruzen malgutasunaz munduan oso gutxi dakite nik lain.

• **Zelakoa da zure izakera?**

Ni atxurra naiz. Eskuareak lurra orraztu egiten du baina atxurrari beti aztartzeko gogoia sartzen zaio.

• **Adibidez zer?**

Kultur mailan oso folkloriko gabiltz. Eta udal euskaltegia...

• **Beldurti itxurarik ez duzu, zeri diozu beldur?**

Beldurrari. Garena izaten uzten ez digunari.

• **Bisitatuko gaituzu ezta?**

Bai, gorputzari komeni izaten zaio noizean behin bihotza bisitatzera etortzea.

• **Zelan agurtu behar dituzu herritarrak?**

Agur eta eskuminak amandreari.

## A R E T X A Z O K A

### LANA

• 8. mailako klase partikularrak emango dituen norbait behar da. Euskeraz emango dituen. 79 82 14 deitu eta Isabelegatik galdetu.

• REMeko klase partikularrak emango dituen norbait behar da. Deitu 3rak aldera, 79 48 38 telefonora.

• 20 eta 33 urtetako bi neska umeak edo hirugarren adinekoak zaintzeko prest daude. Telefonoa 79 96 24 da eta Txaro edo Begoñatik galdetu.

• Mutil batek pisu bat alokatu gura du Atxalbaltan. Harremanetarako telefonoa: 79 36 42

### ETXEBIZITZA

• Pisu bat salgai dago Eskoriatzan. Berritua eta altzariz hornitua dago. Gaez deitu ondorengo telefonora: 71 40 47

• Neska batek pisu bat alokatu gura du Atxalbaltan. Bere telefonoa ondorengoa da: 79 49 70

### IKASTAROA MARGOLAGUNAK


Helduendako margo klaseak emango ditugu baldin eta taldea osatzen bada. Apuntatu lehenbailehen pintura lokalean (kultur etxean).





## Iosu Arenaza

## "16 ordu lan egiten ditut egunero"



Baserrian txerriak hiltzen hasi eta horrela gustatu zitzaion harategiko lana. Han eta hemen lanean ibilia da, Oñatin, Donostian eta azkenik Atxabaltan bere harategia jarri zuen arte.

- Zenbat denbora daramazu dendan lanean?

*Honetan sei baina lehen goian izan nuen harategia eta han 11 urtez lan egin nuen.*

- Zenbat ordu lan egiten dituzu egunero?

*16 ordu.*

- Zer gurago duzu taberna ala harategia?

*Harategia, nire gustoko lana izan da beti.*

- Ez zara oraindik aspertu?

*Ez, jubilatuta artean hemen egon beharko dut, ez dago beste erremediorik.*

- Zure harategiko ogiek fama ona dute, nork egiten ditu?

*Neuk egiten ditut.*

- Eta sekreto espezialik badute?

*Ez, izerdia atera masa egiterakoan.*

- Oilaskoak zenbat denbora behar du ondo egiteko?

*Ondo egiteko ordubete.*

- Sukaldean ona zara?

*Ez naiz sekula sukaldaria izan baina txuleta ondo preparatzen dut.*

- Non egon zara oporretan?

*Inon ere ez, azken 20 urtetan ez naiz inon egon.*

- Baserrian bizi zara, ze duzu gurago baserria ala kalea?

*Baserria.*

- Zer dauka txarra baserriak eta zer kaleak?

*Baserriak distantzia eta kaleak zarata egoten dena eta niri lasaitasuna gustatzen zait.*

- Zure afizio bat...

*Pelota asko gustatzen zait.*

- Praktikatzen duzu?

*Ez, ez dut astirik.*

- Zer egiten duzu etxera joandakoan?

*Lo. Gaueko 11etan joaten naiz etxera eta goizeko Setan jaikitzen naiz.*

- Giza balorerik garrantzitsuena...


*Inori gaizki ez egitea.*

- Zer du ona udazkenak?

*Fruita jasotzea, urrak, babak, gaztainak, sagarrak, e.a.*

- Dendaria izan ez bazina...

*Pelotaria izango nintzatekeen.*



**Iosu Sarasua** dugu aurreko alean saritu suertatu zena.

## KILOMETROAK LEHIAKETA

Hona hemen KILOMETROAK 95 jaiaren abestia:

Argiak ura urrezta.  
Heldu da ikastolen festa:  
aurten ere izan dadila  
jendez ta pozez gainezka.

Ez gaitu izutzen geroak.  
Gure bihotzak, beroak.  
Jaso ditzala Donostian  
euskarak bere hegoak!

ZUREA ETA NIREA  
EUSKARAREN BIDEA

Hogei ken bat, hemeretzi.  
Ez dezagun inoiz etsi:  
euskarak behar gaitu eta  
euskarari zintzo eutsi.

Basoan eder haritza.  
Ez dezagun, ez, gal hitzal  
Ate orotara moldatu  
gure hizkuntzaren giltza.

ZUREA ETA NIREA  
EUSKARAREN BIDEA

Erleak gozo ezfia  
Kito hemen abestia.  
Gora gure Kilometroak  
eta gora Donostia.

ZUREA ETA NIREA  
EUSKARAREN BIDEA

KILOMETROAK lehiaketarekin jarraitzen dugu. Beheko galdera asmatzen duzuenon artean KILOMETROAK 95ek salmentan duen materiala erosteko 5.000 pezetetako materiala zozketatuko da. Agiri honekin Groseko KILOMETROAKen dendan (Mirakruz 6) materiala trukaturiko zaizue edo baita urriaren 1ean KILOMETROAKen salmentetan ere. Bidali erantzuna, kultur etxean dagoen buzoira edo postaz bidaliz gero Aretxagazeta, 151 postakutxatila, 20550 Aretxabaleta.

**Z**ein orrialdetan dago KILOMETROAK 95 jaiaren logoitipoa?

\*Aurreko aleko erantzuna "15. orrialdean" zen.

**KILOMETROAK 95**  
Donostiako Gros auzoan urriaren 1ean.

Erantzuna: .....

.....


Izena: .....

Kalea: .....

Tfnoa: .....



**BERGARA**



**San Martin jaiak**

**Irailak 15**

**SAN MARTIN JIAIK**

Hainbat ekintza egongo dira. Danborrada, Joselu anaiekin dantzaldia, e.a.

**Irailak 16 zapatua**

**SAN MARTIN JIAIK**

8,30etan sokamuturra herriko kaleetan, Eguerdiko 12etan **ABANKARGAZKO ARMEKIN PLATER TIRAKETA** Gorlako kantina inguruan, gaueko 10etan **suzko erruerak**, ondoren dantzaldia **Beleak taldearekin**, eta beste ekintza mordo bat egongo dira egunean zehar.

**Irailak 17 domeka**

**AIRE ZABALEKO PINTURA LEHIAKETA**

BEART Arte elkarteak antolatuta eta Bergarako Udalaren laguntzarekin.

Arratsaldeko 7,30etan **BIKOTEEN DANTZA ASKATUKO TXAPELKETA**, e.a.

**Irailak 23 zapatua**

**HERRI KROSA ETA BERTSO JAIALDIA**


Beste ekintza batzuen artean, arratsaldeko 6etan **HERRI KROSA** egongo da. Gauean barrez, bertso jaialdia Jardun Elkarteak antolatuta eta Mariaren Lagundiko aretoan, **Ainhoa Agirrezaldegi, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Ion Maia** eta **Angel Mari Peñagarikano** bertsolariekin. Gai jartzaillea, **Joserra Gartzia**.

**Irailaren 11tik 17ra**

**XAKE ASTEA**

Xakearen inguruan hainbat ekintza antolatu dira. **Hitzaldiak, Jokaldiak, Maratoia, Txapelketak**, e.a.

**OÑATI**



**Irailak 23**

**HAURREN TANBORRADA**


Arratsaldeko 6etan **haurren tanborrada** izango da eta ostean **erraldoien konparsaren** agertaldia. Gauean barrez, 10,30etan **HIRUTRUKU TALDEAREN** kantaldia egongo da Santa Ana Antzokian.

**Irailak 24 domeka**

**NAZIOARTEKO ARTZAI TXAKUR LEHIAKETA**

Goizeko 11etan izango da.

**ARRASATE**



**“Gazteok bizikletaz” VI. argazki lehiaketa ASA eta LURRATS elkartearen kolaborazioaz.**

Bi kategoria daude Deba Garaiko 14tik 18 urtera bitartekoak eta 19 urtetik 35 urtera bitarteko edozeinek parte hartu dezake. Koloretan zein zuribeltzean aurkeztu daitezke argazkiak eta gaia **“GAZTEOK BIZIKLETAZ”** da. Lanak aurkezteko azkenengo eguna urriaren 11 da. Informazio gehiago Arrasateko gazte informaziorako bulegoan.

**ZARAIA TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

**MANTEKA ANAIK**

*Okindegia - Goxotegia  
Panaderia - Pasteleria*

**Aretxabaleta**

*Militaria 1 - Tfn. 77 00 81*

*Aretxabaleta  
Obrador Propio*

**PAGALDAI**

Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14  
**ARETXABALETA**



ARETXABAETA



Jubilatuen Eguna

Irailaren 30ean Jubilatuen Eguna ospatuko da. Hori dela eta bazkarirako txartela erosi gura duzuenok Basotxotik pasatu behar duzue.

Irailak 24 domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaeta-Bergara-Elgoibar-Mendaro-Elgoibar-Aretxabaeta. Guztira 74 Km. egingo dituzte eta irteera goizeko 9etan izango da Zaraia kaletik.

SAN MIGEL JAIEN BUKAERA

Ikus egitarau berezia

MENDI IRTEERA

Zaraia Mendi Taldeak **Zaraia** egingo du irteera.

Irailak 17 domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaeta-Arlaban-Arroiabe-Durana-Gamarra-Gopegi-Ollerias-Legutiano-Landa-Aretxabaeta. Guztira 75 Km. izango dira eta irteera goizeko 9etan izango da Zaraia kaletik.

BESAIDEKO EGUNA

Zaraia Mendi taldeak Besaidera egingo du irteera.

Irailak 19 martizena

LORAMENDI LIBURUAREN AURKEZPENA ETA PRENTSAURREKOA

Loramendi Elkarteak **Loramendi liburuaren berrargitarapena** dela eta prentsaurrekoa egingo du Udaltxeko pleno aretoan arratsaldeko 7etan.

Irailak 22 eguakotxa

SAN MIIGEL JAIEN HASIERA

Ikus egitarau berezia

Irailak 23 zapatua

SAN MIIGELAK

Ikus egitarau berezia

**ONDO PASAU  
SAN MIIGELAK !!!**

Aurten ere BEINKE

LORAMENDI San Migeletako dantza egingo da LORAMENDI ELKARTEAren eskutik.

Entsaioak hasita daude eta astelehen eta asteazkenero Kurtzebarri eskolako beheko patioan izaten dira, arratsaldeko 8etatik 9ak arte ingurura. Parte hartzeko eskatzen den bakarra dantza egiteko gogoia izatea da. Adin guztietako jendeari dei egiten zaio eta bereziki gizonezkoei, aurten ere gutxiago dira eta.

Beraz badakizue,

**Animatu eta parte hartu.**

BEHARREZKO  
TELEFONOAK



Aretxabaeta

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	77 45 67
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkarte	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi K.E.	77 0970
• Murruxio M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otalora	79 79 99

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	76 14 69
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	79 13 57
• Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkarte	79 87 77
• Deba Garaiko Udal Elkarte	79 33 99
• SOS Deiak	088

**CONSUM EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABAETA



Basabe Poligonoa A-15

☎ 79 34 28

ARETXABAETA

ITURGINTZA

**J.J**

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



# Errealitateak fikzioa gainditzen duenean.



## Escort'95 berria



Batzetan errealitateak espektatiba guztiak gainditzen ditu. Baita Escort'95ak ere. Automobil klase berria. Oso estilo jakinekoa. Ibilian, fikziozko munduan zaudela usteko duzu bere ixiltasuna eta dardara eza direla eta, baina errealitatea da. Bere suspentsio sistema berriak eta direkzio lagunduak, suabea eta arina egiten dute bidetan Escort berria.

Bere segurtasuna sistema aktibo eta

pasiboaz gain, gainera, lapurketen kontrako finkatzaile elektroniko sistema berria.

Escort berriak Zetek 16 V. edo Turbodiesel motore aurreratuak ditu eta aukera zabala 3,4,5 ate eta Nomade eta Cabrio modeloetan. Proba ezazu zure Banatzailean. Orduantxe ulertuko duzu errealitateak zergatik gainditzen duen fikzioa.



Ford guztion  
segurtasunerako

Informazioa eta proba 900 51 51 51

**MUGARRI**

